



2010-01-10

Googlek barkamena eskatu du liburuak baimenik gabe publikatzeagatik

AEBetako multinazionalak idazle txinatarren milaka obra argitaratu ditu bere 'liburutegi digitalean' egile-eskubideak ordaindu gabe.

Google-k barkamena eskatu dio ofizialki gutun baten bidez Txinako Idazleen Elkarteari bere liburutegi digitalean milaka obra txinatar argitaratzeagatik egile-eskubideak ordaindu gabe.

AEBetako multinazionalak idazle txinatarrekin eztabaida negoziaketekin konpontzeko asmoa du eta bere webgunean liburu txinatarrik ez duela argitaratuko agindu du, negoziaketak amaitu arte.

2008. urtean Txinako agintariak Google-k sarean 18.000 liburu publikatu zituela salatu zuten, idazleei informaziorik eman barik eta egile-eskubideak ordaindu gabe.

Txina munduan internauta gehien dituen herrialdea da, 300 milioi gutxi gora behera agintariak egiten duten zentsuraren arren.